

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
32 positibo berri*	81 hildako	158 positibo berri	187 hildako
1.532 positibo guztira	345 ospitalizatuta	3.231 positibo guztira	1.432 ospitalizatuta

\*Hernanin 33 Astigarragan 7      Sendatuak 3.568 EAEn;380 Nafarroan

## Berrogeialdia xamurtzeko proposamenak, Dobera Euskara Elkartearen eskutik

Dobera Euskara Elkarteak, bere egitasmoak gelditu ditu egungo egoera dela eta. Hala ere, etxetik hainbat entretenimendu eskaintzen ditu, eta proposamen berriekin dator. Horrez gain, Udaleku Ibiltarietan izena emateko aukera dago.

HERNANI DOBERA

Koronabirusak sortutako egoera honen aurrean, Doberak antolatuta zituen egitasmoak eten egin behar izan ditu, «egungo ezegonkortasuna dela eta, ezin dugu jakin noiz jarriko garen martxan». Hala ere, berrogeialdia «xamurtzeko» asmotan, Doberak hainbat ekimen eta proposamen ditu eskuartean.

Alde batetik, berrogeialdirako, euskera, taldean eta online praktikatzeko *Berrogeialdian euskaraz* egitasmoa sortu nahi du. Orain arte, *Mintzalaguna* egitasmoan biltzen dira hainbat herritar, astero-astero ordubetez euskera praktikatzeko asmotan, «baina itxieraren ondorioz hitzordu horiek ezin dira presentzialki egin». Horren ondorioz, etxetik, taldean euskera praktikatzeko aukera zabalduta nahi du Doberak.

Horretarako, «bi eratako jendea bildu nahi da, itxialdiak irauten duen bitartean». Lehen, «euskara praktikatu nahi dutenak» eta bigarrena «euskara praktikatu nahi dutenei laguntzeko prest daudenak».

Saioak, ordenagailu edo mugikor bidezko bideo deiez egingo dira, eta hitzorduak, eta taldeak aurretik adostu eta koordinatuko ditu Doberak. Printzipioz, Doberak aurreikusi du, astean ordubete bideo-hitzorduak izango direla bultzatuko direnak, baina «taldeek euren artean ere adostu dezakete maiztasuna eta iraupena».

Interesa izanez gero, jarri kontaktuan

Proposamen honetan, parte

diegu». Emailaz jarri daiteke kontaktuan Doberarekin, *dobera@dobera.eus* helbidera idatziz, edo 662 406 692 telefonora deituz.

Berrogeialdirako, materiala

Berrogeialdia arintzeko asmotan, berrogeialdirako materiala ere sortu du Doberak, txiki-txiki zein helduentzako proposamen ezberdinekin, hala

nola, jolasak, audio-ipuina, abestiak, errezetak, eskulanak... Hau guztia, Doberako youtube kanalerara igoko dira <https://labur.eus/VlIOo>, eta sare sozialetan ere izango da material hauen berri.

Dobera euskara elkarteak, animoak luzatu nahi izan ditu, «gure aldetik gomendio bakarra: etxean gera zaitzete: beldurrik gabe, bai ordea, arduraz... baina, umore onarekin!». K

hartzeko interesa dutenek, Doberarekin kontaktuan jartzea besterik ez dute, «kontu teknikoekin eta izan ditzakeen zalantza guztiekin lagunduko



Aurreko urteko udan, ederki pasa zuten Doberako Udaleku Ibiltarietan.

## Izena emateko aukera dago, Doberak antolatutako Udaleku Ibiltarietan

Izena emateko epea irekita dago, eta maiatzaren 22ra arte egongo da aukera. Doberako webgune bidez egin daiteke, [www.dobera.eus](http://www.dobera.eus)-en.

HERNANI DOBERA

Hernaniko Dobera Euskara Elkarteak antolatzen dituen 10. Udaleku Ibiltariak dira aurten goak, eta hauek, opor garain, eta aisialdian «euskararen erabilera indartzea eta sustatzea dute helburu».

Aurten ere bi txanda antolatuko dira. Lehenengo txanda, uztailearen 13tik 24ra izango da «Urola kostan» zehar ibiliko dira, 2005-2007 urteetan

jaiotakoak. Matrikulazioari dagokionez, 210 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta 250 euro gainerakoak.

Bigarren txanda, uztailearen 26tik 31ra bitartean izango da, eta «Aralar» inguruetan ibiliko dira gazteak. 2008-2010 urtean jaiotakoak izango dira bigarren txanda honetan parte hartuko dutenak. 140 euroko matrikula ordaindu beharko dute bazkideek, eta 170 euro gainontzekoak.

Izena emateko azken eguna maiatzaren 22a izango da, eta jadanik aukera dago, beraz lehenbailehen apuntatzeko gomendioa luzatu du Doberak, «kopuruak mugatuak dira, beraz mugitu!». Apuntatzeko, [www.dobera.eus](http://www.dobera.eus) webgune bidez egin daiteke.

Informazio gehiagorako, jarri kontaktuan Doberarekin *dobera@dobera.eus* helbide elektronikora idatziz edo deitu 662 406 692 telefonora.

## Osteguneroko azoka, bihar

HERNANI AZOKA

Etzi, Ostegun Santua da eta datorrena, jaieguna. Hori dela eta, osteguneroko azoka asteazkenean izango da, hau da, bihar, Urbieta kalean. Gogoratu, Koronabirusa dela eta, soilik elikagai postuak egongo direla.

## 'Gazterantzun' denbora pasa

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Berrogeialdirako, hainbat ekintza prestatu ditu Astigarragako Gaztelekuak, eta haien artean, *Gazterantzun* ekimena antolatu dute. Txapelketa hau, egunean bost galdera erantzutean oinarrituko da, Astigarragako hainbat kontuekin zerikusia dutenak, hain zuzen. Gazteleku Instagram kontua eta *whatsapp* erabiliko dira, galderak luzatu eta erantzunak jasotzeko.

## 'Bota Bertsoa!', apirilaren 27ra arte

URUMEA 'BOTA BERTSOA!'

Covid-19ak eragindako egoera honen aurrean, *Bota Bertsoa!* lehiaketak aurrera egingo du. Hala ere, epea luzatzea erabaki dute, beraz, apirilaren 27ra arte egongo da aukera bertan parte hartzeko. Sagardotegiak itxita egon arren, bertsoa emailaz bidaltzeko aukera dago, *dobera@dobera.eus* helbidera hain zuzen ere. Gaia, *sagardorik ez balego?* da eta bertsoa nahi den doinu eta neurrian idatzi daiteke. Emailan, izen abizenak eta telefono zenbaki bat jartzea eskatzen da.

## Kartela aurkezteko azken eguna, 14a

HERNANI SAN JOANETAKO KARTELA

Datorren asteazkenean arte egongo da aukera, San Joanetako kartela entregatzeko, *hhz@hernani.eus* helbidera bidaliz.

# Mendi Lore

loradenda, jardineritza

Kolorez bete zure terraza  
**UDABERRIA** iritsi da eta

Landare eskaintza zabala,  
lurrak eta abonoak



Deitu eta egin zure eskoera. Etxera eramango dugu eskatutakoa

943 55 23 26 / 646 776 203

KRONIKAK  
PUBLIZISTA  
BEHAR DU  
ORDEZKAPEN  
BATERAKO

Bidali zure CV-a,  
apirilaren 14ra  
arte:

kronika@ikronika.eus  
Dobera Euskara Elkarte  
Larramendi 11 behe  
20.120 HERNANI

Kronika

DO  
BERA

ESKATZEN DA:

/ Euskara ondo menperatzea,  
hitzez zoin idatziz.  
/ Lantaldian aritzeko  
gaitasuna.  
/ Iniziatiba eta empatia.  
/ Publizitate edo marketing  
ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIIO:

/ Kontratua: sei hilabetetarako.  
/ Eginkizunari dagozkie  
soidata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:

/ Urumea bailara ezagutzea.  
/ Doberako bazkide izatea.  
/ Tokiko hedabideak  
ezagutzea.  
/ Publizista lanetan  
esperientzia.  
/ Maketatzeko eta diseinu  
programen ezagutza.  
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituzien artean  
probak egin ondoren bat aukeratu da.

**GAUR** Gaur eguraldiak argitzera egingo du. Hodeitza saretuago egongo da, bereziki eguerdi inguruan, eta horren ondorioz tenperaturak gora egingo du. Orokorrean giro goxoagoa espero da. **Min.10° / Max.18°**

**BIHAR** Giro eguzkitsua espero dugu. Zerua hodei gutxiarekin egongo da, nahiz eta egunsentian behe-lainoa sortuko den barnealdean. Arratsaldean eta gauetan hodeiak ugartzen joango dira. **Min.9° / Max.21°**

**DOBERA** EUSKARA ELKARTEA  
**LAGUNTZAILEAK**  
Hernaniko Udala  
Astigarragako Udala  
Euzko Udala  
Gozietako Udala  
ARANOKO UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**  
Euzko Jaurlaritzako Gobernua  
Gipuzkoako Foru Aldundia

## Etxea ziberleku segurua bihurtzeko aholkuak eskaini ditu Ertzaintzak

Egungo egoeraren aurrean, askok telelana egin behar dute, eta Hernaniko Ertzaintzak aholkuak eman ditu, etxea ziberleku segurua izateko.

**HERNANI ERTZAINZA**

Koronabirusak eragindako egoera honen aurrean, askok telelana egin behar dute etxetik. Hori dela eta, Hernaniko Ertzaintzak, hainbat gomendio luzatu nahi izan ditu, etxea ziberleku segurua izateko asmotan.

«Zibergaizkileek badakite, gehienez etxetik konektatuko direla, eta informazio baliagarria da beraien delitu-jardue-

rak egiteko. Horregatik oso garrantzitsua da maila guztietan neurriak hartzea, hala nola, interneteko konexioetan, konektatzeko erabiliko diren ekipo informatikoetan, sartzan ditugun datuetan...»

Honen hildotik, *Europolek* prestatutako aholkuen berri eman digute, «norbere etxea ziberleku segurua bihurtzeko».

Wifiari dagokionez, *route*-raren pasahitza beti aldatzea

gomendatzen da, antibirus bat instalatzea ere gomendatuz. Gainera aipatzen dute, berriki behar direla aplikazioen baimenak eta ezabatu erabiltzen ez direnak. Pasahitz sendoak erabili behar dira, eta desberdinak erabiltzeko ere aholkatzen da. Bakoitzaren datuen segurtasun-kopia bat egitea ere gomendatu dute, eta noski aldi-aldian, *softwarea* eguneratzea.

**Aholku gehiago, 'kronika.eus'en**

Gomendio gehiago ere eman dituzte eta, [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus) webgunean daude ikusgai. **K**

## Egutegi fiskala aldatu da, udal zergak eta tasak ordaintzeko epeak luzatuz

Bizi dugun egungo egoera honen aurrean, egutegi fiskala aldatu du Astigarragako Udalak, udal zerga eta tasak ordaintzeko epeak luzatuz.

**ASTIGARRAGA UDALA**

Alarma egoera arautzen duten dekretu eta xedapen orokorrek ezarri dute, administrazio epeak etenda geratu direla, zerga arloko epeak izan ezik.

Nolanahi ere, Astigarragako Udalak, egutegi fiskala aldatzeko eskumena du, eta beraz, alarma egoera honen aurrean, eta honek eragindako zailtasunak ikusita, udalak erabaki du

aldatzea, eta udal zerga eta tasak ordaintzeko epeak luzatzea, «herritarren betebeharrak horiek betetzeko erraztasunak izan ditzaten».

**Egutegiko aldaketak**

Egutegi fiskal berriak, aldaketa nagusi hauek ditu; lehenik, arau orokor gisa, 3 hilabetez luzatu da zerga eta tasak ordaintzeko epea.

Bigarren, jarduera ekonomi-

koen gaineko zerga hilabetez luzatu da, eta azkenik, uraren tasa 4 hiruhilekotan ordaindu ordez, 3 lauhilekotan ordaindu beharko da. Zerga bakoitzaren ordainketa epe berriak ikusteko, Astigarragako Udalaren webgunean ikusi daitezke, [www.astigarraga.eusen](http://www.astigarraga.eusen) hain zuzen.

Ordainketa epeak luzatzeaz gain, Udala aztertzen ari da, «zerga eta tasa desberdinen ordainketetan behar gehien duten herritar eta jarduera ekonomikoek lgauntzeko beste bide batzuk», eta adierazi dute aurrerago emango dutela laguntza hauen berri. **K**

**JASOTA BEZALA**

Guinea argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Burgesiaren oldarraldiaren eragina hezkuntzan

Covid-19aren lehen ondorioa Hego Euskal Herrian, heziguneak eta unibertsitateak ixtea izan zen. Lehenik eta behin, Gasteizko heziguneak eta Arabako kanpusa zarratu ziren, ostean Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako kanpusak ere. Izan ere, gainbalioaren erazketarekin jarraitzeko hautu irmoa egin du euskal zein espainiar burgesiak. Ikus dezakegu, ikasle langileok kolokan uzteko arazorik ez dutela izan, hain zuzen ere, unibertsitateak gainbalioa sortzen ez dute eta.

Ikasketa prozesuarekin jarraitzeko zailtasunak nabariak dira unibertsitatean nahiz bigarren hezkuntzan aurrez aurreko dozentzia bertan behera utzi dutelako. Internet bidezko irakaskuntza martxan jartzen saiatu

diren arren, begi-bistakoak dira horrek dituen berezko mugak, ikasle txiroenak sufritzen duten arrakala digitalak areagotzen dituenak, bestalde. Gainera, informazio faltak norbere ikasketen prozesuaren antolaketa asko zailtzea dakar, gaur-gaurkoz ez baitakigu ez noiz, ez nola egingo diren unibertsitatean azterketak, horrek sortzen duen ziurgabetasunarekin. Antzekoa da Lanbide Heziketako ikasleonego ere: praktikaldiak bertan behera utzi ostean ez dakigu errepikatu egin beharko ditugun edo balekotzat joko diren orain etendakoak kalifikaziorako.

Selektibitateko proba atzeratu izana ere aipatzeko da, eta Baxoa atzeratzeko erabakia oraindik hartu ez bada ere,

pentsazekoa da berandu baino lehen atzeratuko dela hau ere.

Amaitzeko, zera exijitzen dugu: 1) osasun larrialdiari dagokion informaziorik ez ezkutu eta egia osoa azaltzeaz gain, airean dauden ebaluazio irizpide eta data guztiak lehenbailehen finkatzea, 2) unibertsitateek, ikastetxeek eta gobernuek egoera honetan ikasle langileen ikas baldintzak okertu ez daitezen beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea eta 3) hezkuntza esparruan hartzen diren erabaki guztietan ikasleria langilearen interesen ordezkaritza bermatzea bere antolakunde bitartez.

**Ekain Perera Zerain, Joanex Artola Vázquez eta Ainhoa Adarraga Ayerbe**  
Ikasle Abertzaleak

## Odola emateko aukera gaur, Goiz Eguzkin

Ez-ohiko egoera izan arren, odola emateko zita jarri dute gaurkoan, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara Goiz Eguzkin.

**HERNANI ODOL EMATEA**

Koronabirusak eragindako egoera honen aurrean, etxetik ez ateratzeko bete beharra daukagun arren, odol emate lanekin jarraitzea beharrezkoa da, «Odol Bankuak ospitaleak hornitzeko beharrezkoak diren izkinak mantentzen jarrai dezan». Ho-

rretarako, odola emateko deia luzatu nahi izan dute, eta gaurko jarri dute zita.

Hala ere, ez da betiko moduan izango, izan ere Goiz Eguzkin izango da. Gaur goizean zehar, txanda hartu beharko da, 943 007 884 telefonora deituz, goizeko 08:30etatik eguerdikoko 14:00etara.

Behin deituta, ordu zehatz bat emango dute, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara bitartean, odola ateratzera joateko, «aglomerazioa sahiesteko asmotan». Azkenik antolatzaileek gaineratu dute, 50 odol emaile behar dituztela. **K**

## Hernaniko adinekoei deiak, Udalak

65 urtetik gorakoei deiak egiten ari zaizkie Hernaniko Udala, ondo dauden jakiteko eta balizko beharrak antzemateko.

**HERNANI UDALA**

Udala, 65 urtetik gorako hernaniarrei telefono deiak egiten ari zaizkie, konfinamendu

egoera nola eramaten ari diren eta beharrak dituzten jakiteko asmotan. Ekimen honen helburua, adinekoen kolektiboaren egoeraren berri izatea eta, «herritarren batek beharrak dituela antzemanen gero, asetzeko moduak biltzea». Gainera, egin diren deiak aintzat hartuta, ondorioztatuta dute, datu positiboak daudela, «gure adinekoak ondo zainduta daude, eta inguruko laguntza asko daukate». **K**

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**MARIA ROSARIO ANABITARTE ZAPIRAIN**  
- Goian bego -  
Ez dago heriotzik  
maitasuna gaudituko duenik.  
**ZURE ALABA ROSIREN BITERIKO LANKIDEAK**  
Hernanin, 2020ko apirilaren 7an

I. URTEURRENA  
**Joxe Mari Gainza Artola**  
Betiko izango zaitugu gogoan  
**ETXEKOAK**  
Hernanin, 2020ko apirilaren 7an

**IRAGARKI MERKEAK**

**ONDDI AKADEMIAN** streaming bidezko klaseak eskaintzen ditugu DBH eta Batxilergoan.  
Info gehiago: **688719571** edo [onddiakademia@gmail.com](mailto:onddiakademia@gmail.com)  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**